



Euskararen berri OLAtu gainean

2016ko otsaila ALBISTEAK

Hizkuntzaz, identitateaz, herritartasunaz, errespetuaz...

Cultura vasca vs Euskal kultura!? liburua iaz aurkeztu zuen Iztuetak, eta izenburu bereko hitzaldia eskaintzen ari da Martin Ugalde Foroan, Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean. Ekitaldia irekia da, eta zuzenean dago ikusgai BERRIaren webgunean.

Berria: http://www.berria.eus/albisteak/120061/hizkuntzaz_identitateaz_herritartasunaz_errespetuaz.htm

Euskaraz "eroso" bizitzeko tresnak eman dizkie Gemma Sanginesek euskalgintzako kideei

Arrasateko euskalgintzan diharduten hainbat taldetako ordezkariak hizkuntza aktibismoaren gaineko ikastaroa izan dute aste bukaeran Gemma Sangines katalandarrak gidatuta.

Goiena: <http://goiena.eus/arrasate/1456685488925>

«Uste baino egoera gehiagotan mintza daiteke euskaraz»

Donostiako Egia auzoan burutzen ari diren esperientzia aitzindaria, «jokamolde batzuk adostuta» euskaraz bizitzea horren zaila ez dela frogatu duena, azken txanpan da.

DV: <http://www.diariovasco.com/gipuzkoa/201602/27/uste-baino-egoera-gehiagotan-20160226155350.html>

Europako hizkuntzen mapa berria eta datuak

Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak Europan hitz egiten diren hizkuntzei buruzko jardunaldia burutu du eta sortu berri duen Europako Hizkuntzen mapa berria aurkeztu du.

Sustatu: <http://sustatu.eus/1456222065149>

Udaltop VII apirilean: gazteak, kirola eta euskara hizpide

«Kirola D ereduari, noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?», hori da Udaltopen zazpigarren ediziorako aukeratu dugun gaia. Hitzordua ere zehaztu dugu: 2016ko apirilaren 21a eta 22a Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean.

Sustatu: <http://sustatu.eus/udaltop/1456389165>

Patxi Saez Beloki (soziolinguista): 'Euskara, beharra da gakoa'

Hizkuntzak gizakiak komunikaziorako asmatu dituen tresnak dira. Gizateriaren historiaren sokan bizirik iraun duten hizkuntzak hitzunen komunikazio beharretara egokitu izan dira, komunikazioa izan dute molde eta moldatzaile. Eta komunikazio premia horietara moldatu eta egokitzetik etorri zaie hizkuntzei etengabeko aldaketa. Eta etengabeko egokitze eta aldaketa horretatik etorri da hizkuntzen garapena eta modernizazioa, baita euskararena ere.

Berria: http://www.berria.eus/paperekoa/1832/020/003/2016-02-18/euskara_beharra_da_gakoa.htm

Euskararen erabilera bultzatzeko diru-laguntzei eutsi die Gipuzkoako Diputazioak

Gipuzkoako diputatuen kontseiluak oniritzia eman dio euskararen erabilera sozialaren esparruan lanean ari diren elkarteei, erakundeei eta norbanakoei zuzendutako 2016ko diru-laguntzen deialdiari. Laguntza hauen helburuak askotarikoak dira: euskararen erabilera soziala hedatzeko jarduerak, ikus-entzunezkoetan euskararen erabilera bultzatzea, udaletan normalizazio programak garatzeko laguntza, eta abar.

Goiena: <http://goiena.eus/debaqoiena/1456236000386>

Itziar Idiazabal: 'Hizkuntza txikien alde eginda, gizarteak balio ekonomikoak gehiago garatzeko aukerea dau'

Unesco Katedrako koordinatzaile Itziar Idiazabalegaz egin dogu berba eta hizkuntza txikien alde egiteak daukazan abantailak nabarmendu ditu. Izan be, hizkuntzak danon altxorra dirala dino.

Sustatu: <http://sustatu.eus/1456211734801>

Jaurlaritzak euskarazko zortzi hiztegi aurkeztu ditu

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurkeztu ditu hiztegiak, Donostian.

Berria: http://www.berria.eus/albisteak/119554/jaurlaritzak_euskarazko_zortzi_hiztegi_aurkeztu_ditu.htm

Euskarazko zerbitzua bermatzeko, ituna egin dute Jaurlaritzak eta hamar merkataritza katek

Hamar merkataritza kate handik izenpetu dute akordioa Eusko Jaurlaritzarekin. Hauek dira: Carrefour, El Corte Ingles, Eroski, Fnac, Forum Sport, Inditex, Media Markt, Mercadona, Sabeco eta Uvesco.

Berria:

http://www.berria.eus/albisteak/119079/euskarazko_zerbitzua_bermatzeko_ituna_egin_dute_jaurlaritzak_eta_hamar_merkataritza_katek.htm